

Identitate nazionalaren garapena Euskal Herriko haur eta nerabeengan

Luixa Reizabal
EHUko irakaslea

Jose Valencia
EHUko irakaslea

Maritxu Jimenez
UEUko
Psikologiako
Sailburua

Martyn Barrett
Surrey
Unibertsitateko
irakaslea

Ikerketa honetan testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan hazten ari diren euskal haurrengan identitate nazionala nola garatzen den aztertzen da. Emaitez adierazten dute identifikazio nazionala, endotalde zein exotalde nazionalen inguruko ebaluaketa eta sentimenduak, eta endotaldearekiko desberdintze positiboa eta afektiboa hizkuntza-taldearen arabera aldatzen direla. Hizkuntza-taldearekin erlazioatutako ezberdintasunekin alderaturik, adinaren arabera ezberdintasun gutxi aurkitzen da. Ondorio gisa planteatzen da teoria kognitibo-ebolutibo tradizionalak ez direla gai ikerketa honetan identitate nazionalaren garapenean aurkitu den aldakortasun soziokulturala azaltzeko. Zentzu horretan, teoria sozio-psikologikoak eta, batez ere Irudikapen Sozialei eta Identitate Sozialari buruzkoak egokiagoak lirateke haurrek eremu honetan duten garapena azaltzeko.

This study investigated the development of national identity in Basque children who are growing up in different sociolinguistic contexts. It was found that both national identification, evaluations of, and feelings towards, national in-groups and out-groups and positive and affective distinctiveness ascribed to the in-group differed in the three linguistic subgroups. Compared with the range of differences which occurred as a function of linguistic group, there were relatively few differences which occurred as a function of the children's ages. It is concluded that traditional cognitive-developmental theories are unable to explain the socio-cultural variability that is exhibited in the development of national identity, and that SRT and SIT may provide more useful conceptual frameworks for understanding children's development in this domain.

1. Sarrera

Artikulu honetan, identitate nazionalaren garapena aztertzea helburu duen ikerketa bat aurkezten da. Hain zuzen ere, Euskal Herriko haurren identifikazio nazionalak eta talde nazional desberdinekiko ebaluaketa eta sentimenduetan adinaren eta testuinguru soziolinguistikoaren arabera ezberdintasunak aztertzen dira.

1.1. Identitate nazionalaren garapena: orain arteko ondorioak

Identitate nazionalaren inguruan orain arte egin diren ikerketek adierazten dutenez, bost edo sei urte baino gutxiagoko haurrek beren aberriari buruz oso ezagutza mugatua dute. Askotan aberriaren izena esateko ezintasuna adierazten dute (Piaget eta Weil, 1951) eta, esan dezaketenean, izen horrek adierazten duenaren inguruan duten ulermena oso nahasia da (Jahoda, 1961, 1963).

Bosgarren urtetik aurrera, berriz, elkarrizketetan euren taldekidezari buruz galdetzen zaienean, haurrek beren burua endotalde nazionalaren kidezat hartzen dute (Barrett, 1996; Wilson, 1998). Haurrek beren aberriarekiko eta endotalde nazionalarekiko dituzten sentimenduak aztertu dituzte zenbait ikerketak, baina ikerketa-multzo honetatik emaitza nahasiak lortu dira. Batzuetan aurkitu izan da zazpigarren urtera arte, behintzat, haurrek ez dietela sistematikoki lehentasunik ematen beren aberriari edo erkideei (Piaget eta Weil, 1951; Middleton, Tajfel eta Johnson, 1970; Jaspers, Van de Geer, Tajfel & Johnson, 1972). Beste batzuetan, aldiz, bosgarren edo seigarren urtetik aurrera, haurrek beren erkideei eta endotaldeari lehentasuna ematen dietela behatu da (Lambert & Klineberg, 1967; Tajfel, Jahoda, Nemeth, Campbell & Johnson, 1970; Bennett, Lyons, Sani & Barrett, 1998; Wilson, 1998; Barrett, 2000, argitaratzean). Haurrek beren identitate nazionalari ematen dioten garrantzia bai eta endotalde nazionalarekiko identifikazio maila ere, areagotu egiten dira bosgarren edo seigarren urtetik hamaika edo hamabigarren urtera arte (Barrett, Wilson & Lyons, 1999; Barrett, 2000, argitaratzean). Hala ere, joera orokor horiek haurrak hazten ari direneko egoera soziokulturalaren eraginez, aberriaren arabera, aberri barnean eskualdearen arabera edo elkarte baten barnean talde soziolinguistikoaren arabera alda daitezke (Barrett, del Valle, Lyons, Vila, Monreal & Perera, 1999; Barrett, 2000, argitaratzean).

Atzerriko aberri eta talde nazionalen ezagutzari dagokionez, haurrek bosgarren urtera arte atzerriko herriak izendatzeko duten gaitasuna oso pobrea dela eta atzerriko herri bat zer den ulertzeko zailtasun handiak dituztela behatu izan da (Piaget eta Weil, 1951). Beste herrien ezagutza bosgarren urtetik aurrera hasten da garatzen (Piaget & Weil, 1951; Jahoda, 1962; Barrett & Farroni, 1996; Barrett, Lyons, Purkhardt & Bouchier, 1996), nahiz eta oraindik 10-11 urtera arte gutxi gorabehera, zenbait haurrek beste herriei buruzko oso ezagutza geografiko pobrea adierazi (Jahoda, 1962; Barrett & Farroni, 1996; Barrett et al., 1996). Beste herriei buruzko ezagutzan ezberdintasunak daude talde sozialaren arabera. Adibidez, Ingalaterrako haurrek Europako beste zenbait herriri buruz duten ezagutza aldatu egiten da klase sozialaren, kokapen geografikoaren eta generoaren arabera. Horrela, klase ertaineko haurrek langileria haurrek baino ezagutza-maila altuagoa dute; hiritarrek baserritarrek baino gehiago dakite eta mutilek neskek baino gehiago (Barrett et al., 1996). Aberri ezberdinetako haurrek eta aberri berean eskualde ezberdinetan bizi diren haurrek ere ezagutza maila ezberdinak

adieraz ditzakete; Italiako iparraldeko haurrek, adibidez, beste aberri buruzko ezagutza-maila altuagoa dute Italiako hegoaldeko eta Ingalaterrako haurrekin alderatuz (Barrett & Farroni, 1996; Axia, Bremner, Deluca & Andreasen, 1998).

Tarteko haurtzaroan, beste aberrien inguruko ezagutza areagotzearekin batera, aberri horietan bizi den jendeari buruzko estereotipoen lanketa eta jabetza gertatzen dira (Piaget & Weil, 1951; Jahoda, 1962; Lambert & Klineberg, 1967; Barrett & Short, 1992). Hala ere, haurrek estereotipo nazionaletan onartzen dituzten ezberdintasun indibidualen kopurua handitu egiten da 5 eta 10 urteren artean (Barrett & Short, 1992; Barrett, Wilson et al., 1999). Horrela, helduagoak diren haurrek txikiagoek baino gogo hobez onartzen dute talde nazional ezberdinetako kideen artean aldakortasun handia egotea. Batzuetan haurrek oraindik ezagutzen ez dituzten atzerriko talde jakin batzueganako sentimendu sendoak garatzen dituzte (Johnson, Middleton & Tajfel, 1970; Barrett & Short, 1992). Ingalaterrako haurrek, adibidez, askotan Alemaniaren edo alemaniarren inguruko informaziorik ez izan arren, alemaniarrengana sentimendu negatiboak adierazten dituzte (Johnson, 1973; Barrett & Short, 1992). Bestalde, haur askok sei edo zazpigarren urtetik aurrera sistematikoki beren aberria hobesten badute ere, beste zenbait exotalde nazionalenganako oso sentimendu positiboak adieraz ditzakete (Lambert & Klineberg, 1967; Johnson et al., 1970; Middleton et al., 1970; Barrett & Short, 1992). Barrett, Wilson *et. al.* (1999) lanaren egileek 5-11 urteko haur ingelesekin egindako ikerketa batean aurkitu zuten 10 edo 11 urteko haurrek exotalde nazional jakin bat (hots, amerikarrak) bere endotaldea bezain gustuko zutela. Bost edo seigarren urtean gutxi gorabehera, haurrek beste herriak lehenetsunaren arabera sailkatzen dituzte, eta sailkapen hori nahiko egonkor mantentzen da haurtzaroan zehar (Johnson et al., 1970; Jaspers et al., 1972; Barrett & Short, 1992). Hala ere, exotalde nazional guztiekiko hobespen-maila areagotzeko joera behatzen da bosgarren eta hamargarren urteen artean (Lambert & Klineberg, 1967; Barrett & Short, 1992; Barrett, Wilson et al., 1999), hamargarren urtetik aurrera joera hori lautu egin ohi delarik (Lambert & Klineberg, 1967).

1.2. Identitate nazionalaren garapenari buruzko ikuspegi teorikoak

Gai honen inguruan egin ziren lehen ikerketetan, oso eragin handia izan zuten Piaget-en teorizazioek; bereziki, identitate nazionalaren garapenean, estadio ezberdinak daudela eta estadio horiek eragiketa aurreko pentsamendua, eragiketa konkretuen arrazamendua eta pentsamendu formala islatzen dituztela dioen planteamendua (Piaget & Weil, 1951). Beranduago, Jahoda-k (1964) Piaget-en estadioetan oinarritutako azalpen horren ezegokitasuna erakutsi zuen, haur askoren garapenean ez baitzen estadio-jarraipen hori betetzen. 1960ko hamarkadan eta 1970ekoaren hasieran burututako ikerketak nahiko ateorikoak izan ziren, eta gehienetan haurren adinaren arabera aberrien eta talde nazionalen ezagutzaren eta afektuen garapen-joerak aztertzea zuten helburu (ikus, adibidez, Lambert & Klineberg, 1967; Johnson et al., 1970; Middleton et al., 1970). Ikerlan horietan behatutako garapen-joerak (bosgarren eta hamargarren urtearen artean exotaldeen inguruko hobespen-maila areagotzea, adibidez) bat datoz gaur egungo ikuspegi kognitibio-ebolutiboek aurreiritzien garapenari buruz ematen dituzten azalpenekin (e.g. Aboud, 1988; Doyle, Beaudet & Aboud, 1988; Doyle & Aboud, 1995).

Ikuspegi horien arabera, tarteko haurtzaroan zehar aurreiritziak urritu egiten dira aldaketa sozio-kognitiboak gertatzen direlako, bereziki umeak talde sozial handiak ezaugarri positibo edota negatiboak dituzten mota askotako subjektuz osaturik daudela onartzen duelako.

Azken urteotan identitate nazionalaren garapenaren inguruko ikerketetan eragina izan duten teoriak, berriz, psikologia sozialetik datozkigunak dira. Helduen identitate nazionala psikologia sozialean oso ikertua izan den fenomeno dugu (ikus, adibidez, Billig, 1995; Breakwell & Lyons, 1996; Reicher & Hopkins, 2000; Reizabal, 1995; Reizabal eta Valencia, 1995) eta gaur egun asko dira teoria sozio-psikologikoak haurrek alor honetan duten garapenari aplikatzen saiatzen ari diren bila-kaeraren psikologoak (e.g. Barrett & Farroni, 1996; Barrett, Lyons, Bennett, Vila, Giménez de la Peña, Arcuri & de Rosa, 1997; Bennett et al., 1998; Barrett, Wilson et al., 1999; Cutts Dougherty, Eisenhart & Webley, 1992; de Rosa, 1997; de Rosa & Bombi, 1997; Vila, del Valle, Perera, Monreal & Barrett, 1998). Hain zuzen ere, bi dira gaur egun identitate nazionalaren garapena azaltzeko aplikatzen diren teoria sozio-psikologikoak: “kognitiboak” eta “sozialak”.

Kognitiboek, hain zuzen ere, Identitate Sozialari buruzko Teoriak (*Social Identity Theory*, SIT) (Tajfel 1981; Turner, 1987; Hogg & Abrams, 1988; Oakes, Haslam & Turner, 1994) eta honen formulazio berria den Kategorizazio Sozialari buruzko Teoriak (*Social Categorization Theory*, SCT) (Turner, Hogg, Oakes, Reicher & Wetherell, 1987; Oakes, Haslam & Turner, 1994) diote identitate-erloko fenomeno asko barne-prozesu kognitiboen eta motibatzaileen ondorio direla. Jendeak mundu soziala sailkatzeko erabiltzen dituen kategoriak hartzen dituzte abiapuntutzat bi teoria horiek. Pertsona batek bere burua horietariko kategoriaren batean sailkatzen duenean (klase soziala edo generoa, adibidez), eta kategoria horrekin subjektiboki identifikatzen denean, “identitate sozial” bat garatu duela esaten da. Identitate soziala talde bateko kide izatearen ezagutzatik eta taldekidetzat horrek subjektuarentzat duen esanahi emozionaletik eratortzen den norberaren kontzeptuaren zatia da (Tajfel, 1978).

SITak eta SCTak diotenaren arabera, identitate sozial bat garatzeak zenbait ondorio kognitibo ditu. Alde batetik, kategoria sozial ezberdinak osatzen dituzten kideen arteko ezberdintasunak areagotzea (“Taldea arteko desberdintzea” delako fenomeno) eta talde bera osatzen duten kideen arteko berdintasunak areagotzeko joera (“Taldea-barneko Homogenizazioa”) agertzen dira. Bestalde, talde barneko faboritismoa garatzen da. Gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta honela, bere portaera hori lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa dagoenean, irudi positiboaren beharra norberaren taldea besteekin konparatuz hobestean islatzen da. Gogoramen baikor honek, konparaketa-dimentsio egokietan, norberaren taldea besteena baino “hobea” dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel, 1978).

Horrekin batera, SCTak dio taldeei buruzko estereotipoen edukiak, bai eta talde jakin bati egozten zaion homogeneousutasun-maila ere, testuinguruaren arabera direla (Oakes et. al., 1994). Teoria honek dio, alde batetik, endotaldea ebaluatzeko hautatu diren konparaketa-taldeen arabera, estereotipo-dimentsio ezberdinak erabil daitezkeela talde jakin bat deskribatzeko. Bestetik dio endotaldean hauteman-

dako homogeneousun-maila areagotu egiten dela, endotaldeko kideak soilik dau- den egoera batekin konparatuz, ebaluaketa taldearteko konparaketa testuinguru batean ematen denean. Are gehiago, endotaldean hautemandako homoge- neotasun-maila areagotua izango da, baldin eta endotaldea numerikoki txikiagoa bada, edota taldea ekonomikoki, politikoki edo sozialki menpekotasun-egoeran badago; egoera hauetan endotaldearen homogeneousuna areagotu egiten da, endotaldearen kohesioa eta osotasuna mantentzeko (Brown, 1995).

Teoria "sozialen" artean Irudikapen Sozialei buruzko Teoria (*Social Representa- tion's Theory*, SRT) (Moscovici, 1988; Farr & Moscovici, 1984; Breakwell & Canter, 1993) askotan aplikatu ohi zaio helduen identitate nazionalaren azterketari (ikus, adibidez, Breakwell & Lyons, 1996). Irudikapen Sozial bat (*Social Represen- tation*, SR) talde bateko partaideek mundu sozialari zein materialari buruz duten ezagutza eta uste-sistema multzo partekatua da. Ondorioz, SR horiek gizakiak errealtatearen inguruan duen ezagutzan eragin garrantzitsua dute. SRak sozialki landuak, mantenduak eta taldekideen artean sozialki transmitituak diren baloreen, kontzeptuen eta praxi sozialen sistema antolatuak dira eta funtzio bikoitza dute: alde batetik, gizakiei beren mundu soziala eta materiala menperatzen eta honetan era egokian jarduten uzten dien ordena bat ezartzeko baliagarriak dira (hau da, gizabanakoaren jokabidearen gidari dira); bestalde, munduko alde ezberdinak kodifikatu eta izendatzeko era bat eskaintzen dute, eta honi esker elkarte bateko kideen arteko komunikazioa ahalbidetzen dute (Moscovici, 1973).

Identitateari dagokionez, teoria honek dio arlo honetan gertatzen diren fenome- noek –talde barneko faboritismoa, talde arteko desberdintzea eta talde barneko homogeneousuna, adibidez– jatorri soziala dutela. Horrek zera esan nahi du: fenomeno horien jatorria taldeko partaideek partekatutako endotaldeei zein exotaldeei buruzko usteen, ideien, iritzien eta abarren sistemetan (SRetan) kokatzen dela. SR horiek ingurunean daude eta hurrek beraiantzat garrantzitsuak diren pertsonekin (gurasoekin, irakasleekin, kideekin...) dituzten elkarrekintza sozialen bidez eskuratzen dituzte (Duveen & Lloyd, 1986, 1990; Lloyd & Duveen, 1990; Emler, Ohana & Dickinson, 1990; Emler & Dickinson, 1993; Barrett, 1996).

Identitate nazionalaren garapenari bi teoria-mota horiek aplikatzeak ikuspegi hau izango luke ondorioztat: bai SIT bai eta SCTaren arabera, umea talde nazional batekin subjektiboki identifikatzen denean, endotaldea beste exotalde batzuekin konparatuz era positiboagoan ebaluatzeko behar motibatzailea du. Horrela, en- dotalde nazionalari egotzitako desberdintze positiboa ("*Positive Distinctiveness*") eta faboritismo-mailak talde horrekiko identifikazio-mailarekin erlazionatuta egon beharko liriateke. Horrekin batera, SCTak auresaten du kopuru aldetik txikiagoak edota politikoki menpekotasun-egoeran dauden taldeetako partaideek endotaldea- ri homogeneousun-maila handiagoa egozten diotela, eta haurren estereotipo na- zionalen edukia testuinguruaren arabera aldatu egiten dela. SRTak, berriz, oso bestelako aurreikuspenak egiten ditu. Horren arabera, nazioarekiko identifikazio- mailak, talde barneko faboritismoa eta endotaldeei zein exotaldeei buruzko irudi- kapenak umearen taldekidetzaren arabera aldatzen dira. Horrela, umeari taldearen arabera SR ezberdinak transmitituko zaizkio. Alde horretatik, SRTak, haurren uste eta sentimendu nazionaletan, taldeen araberrako ezberdintasunak auresaten ditu.

Beraz, identitate nazionalaren garapena aztertzeke eremu teoriko ezberdinak daude. SIT eta SCT aplikatzen saiatu diren ikerketetan ikusi da emaitzek ez dituztela beti bi teoria hauek egiten dituzten aurreikuspenak egiaztatzen. Bennett-ek eta bere kideek, 1998an burututako ikerketa batean, aurkitu zuten haur askok talde barneko faboritismoa garatzen zutela taldearekin identifikatu aurretik. Ondorio hori ez dator bat SITarekin, honen arabera talde barneko faboritismoa identifikazio subjektiboaren ondorioa baita. Barrett-ek, Wilson-ek eta bere kideek 1999an aurkitu zuten 5-11 urteko haurren estereotipoen edukia eta talde barneko homogeneotasun-maila ez direla endotaldea konparatzen deneko exotaldearen arabera aldatzen; beraz, ondorio horren eta SCTaren aurreikuspenen artean kontraesana dago. Ildo beretik, Lyons, Barrett, Bennett, Sani, Vila, Giménez de la Peña, Arcuri, Berti, de Rosa & Bombi-k (1997) aurkitu zuten 6 eta 9 urteko haurren talde barneko homogeneotasun-maila ez dela areagotzen gutxiengo bateko partaide diren haurren; eta hori ere SCTren aurreikuspenen aurka doa.

Emaitza horiek guztiak SIT eta SCTarekin bat ez datozen arren, bai, ordea, SRTaren aurreikuspenekin. Aipatu bezala, zenbait ikerketetan (Barrett & Farroni, 1996; Axia, Bremner, Deluca & Andreasen, 1998; Barrett *et al.*, 1996) aberrien geografiari buruzko irudikapen ezberdinak aurkitu zituzten nazionalitatearen, klase sozialaren, generoaren eta eskualdearen arabera. Ildo beretik, Barrett-ek eta bere kideek 1997an Erresuma Batuan, Espainiar Estatuan eta Italian egindako ikerketa batean, eskualde ezberdinekin identifikatzen ziren haurren endotaldeei eta exotaldeei buruzko irudikapenetan ezberdintasunak behatu zituzten. Orain arteko emaitzak ere bat datoz aurreiritzi etnikoaren garapenaz ikuspegi kognitibo-ebolutiboak dioenarekin (e.g. Doyle *et al.*, 1988). Honek guztiak tarteko umezaroan aurreiritzi etnikoen eta nazionalen murrizketaren oinarria ulermen sozio-kognitiboan gertatzen diren aldaketetan dagoela pentsatzera bultzatzen gaitzake.

1.3. Testuinguru soziolinguistikoaren eragina

Orain arte garapenaren inguruko ikerketa gutxitan aztertu da umea garatzen ari deneko testuinguru soziolinguistikoaren eragina. Gai hori sakonki ikertu duen lan bakarra 1999an Barrett, Del Valle eta bere kideek egindakoa dugu; lan horretan Kataluniako haurren identitate nazionalaren sentimendua aztertzen zen. Katalunian egindako beste ikerketa batean (Vila, 1996) aurkitu zen harreman estua dagoela identifikazio nazional subjektiboaren eta etxean erabiltzen den hizkuntzaren artean (hots, etxean gaztelania, katalana edo bi hizkuntzak erabiltzearen artean). Barrett, Del Valle eta euren kideen ikerketak, berriz, haurren identifikazio nazionalaren azterketa zuen helburu, eta emaitzek adierazi zuten etxean gurasoekin komunikatzeko erabiltzen den hizkuntzaren arabera ezberdintasun sistematikoak daudela identitate katalanaren eta espainiarraren garapenean. Hots, etxean katalan hutsez hitz egiten duten subjektuek identitate katalanari garrantzi handiagoa emateko joera dute, oso katalan sentitzen dira eta ez dira batere espainiar sentitzen. Gaztelaniaz hitz egiten dutenengan, berriz, oso bestelako joera behatu zen: identitate espainiarrari garrantzi handiagoa ematen diote eta oso espainiar sentitzen dira. Azkenik, bi hizkuntzak erabiltzen dituzten haurrek nahiko garrantzia egozten diote europar identitateari eta katalan bezain espainiar sentitzen dira. Emaitza horiek SRTaren aurreikuspenekin bat datoz, emaitzen arabera aztertutako eremuan haurrek dituzten irudikapenak, egunero eurekin elkarrekintzan egon

eta eurentzat garrantzitsuak diren pertsonen taldekidetzaren arabera aldatzen baitira.

Helduekin egindako beste ikerlan batzuetan lortutako emaitzekin ere bat datoz aipatutako ondorioak. Ikerla horietan adierazten dute, alde batetik hizkuntzaren erabilpena eta identitate-talde ezberdinen sorkuntzaren artean harreman estua dagoela. Bestalde, identitate-talde desberdinek jarrera linguistiko desberdinak adierazten dituztela (Giles, Bourhis & Taylor, 1977; Sachdev & Bourhis, 1990; Azurmendi, Garcia & Gonzalez, 1998). Azkenik, Euskal Herrian unibertsitatean euskaraz ikasten diharduten helduek euskal identitatearekiko identifikazio sendo eta positiboa eta espainiar identitatearekiko identifikazio urria adierazten dute; gaztelaniaz ikasten dihardutenek, ordea, euskal identitatearekiko identifikazio-maila baxua eta espainiar identitatearekiko identifikazio altua adierazten dute (Azurmendi, Garcia & Gonzalez, 1998); eta horrek gure ikerketaren ikuspuntutik garrantzi handia du.

1.4. Ikerlan honen helburuak

Euskal Herrian bizi diren haurrengan identitate nazionala nola garatzen den aztertzea du helburu ikerketa honek. Besteak beste, honako hau jakitea: ea haur horien identitate nazionalaren garapena bat datorren ala ez SIT, SCT, SRT eta teoria kognitibo-ebolutiboek auresaten dutenarekin. Horrekin batera, eta SRTari dagokionez, Euskal Herrian identitate nazionalaren garapena etxeko hizkuntza-egoerarekin sistematikoki erlazionatuta dagoen ala ez aztertu nahi da.

Hain zuzen ere, honako arazo hauek aztertzen dira:

- a) Testuinguru linguistikotzat umeak etxean gurasoekin komunikatzeko erabilzen duen hizkuntza hartuz, ondokoa aztertzea: ea testuinguru linguistiko ezberdinetan garatzen diren haurrek identifikazio nazionalaren eredu ezberdinak azaltzen dituzten. Hots, ea Barrett-ek, Del Valle-k eta bere kideek (1999) eta Azurmendik eta bere kideek (1998) aurkitutakoari jarraituz aurreikusten den, etxean euskara hutsez hitz egitea euskal identifikazio-maila handiagoarekin eta espainiar identifikazio-maila txikiarekin lotuta dagoela, eta, gaztelania hutsez hitz egitea espainiar identifikazio-maila altuagoarekin eta euskal identifikazio-maila baxuagoarekin erlazionatuta dagoela.
- b) Ea euskara hutsez hitz egiten duten haurrek beren endotaldearen eta beste exotalde nazionalen inguruan egiten dituzten ebaluaketak bat datozen ala ez, gaztelania hutsez hitz egiten duten haurrekin.
- c) Ea euskara hutsez hitz egiten duten haurrek beren endotaldearen inguruan eta beste exotalde nazionalen inguruan dituzten sentimenduak, eta gaztelania hutsez hitz egiten duten haurrenak berdinak diren ala ez.

Laburbilduz, (a), (b) eta (c) puntuekin, SRTak egiten duen aurreikuspen zabala probatu nahi da, zeinaren arabera, Euskal Herriko haurren identitate nazionala talde soziolinguistiko ezberdinetako taldekidetzaren arabera aldatuko den.

Horrekin batera (d) aztertzen da: ea endotaldearekiko faboritismoa eta endotaldeari egotzitako desberdintze positiboa identifikazio nazionalaren mailarekin erla-

zionatuta dauden ala ez. Arlo horretan, SITek eta SCTek egindako aurreikuspenak probatzea izango litzateke gure helburua; aurreikuspenen arabera bi aldagai horien artean dagoen harremana probatzea.

Azkenik, aztertzen da (e) ea beste ikerketetan behatu den bezala, Euskal Herrian bizi diren haurren identifikazio nazionalean, ebaluaketetan eta sentimenduetan adinaren arabera ezberdintasunik dagoen, Euskal Herriko haurren garapen-eredua teoria kognitibo-ebolutiboek planteatutakoarekin bat datorren ala ez jakiteko.

2. Metodologia

2.1. Lagina

Lagina Hego Euskal Herrian bizi diren 6, 9, 12 eta 15 urteko 246 subjektuk osatzen dute. Horietatik 103 mutilak ziren eta 143 neskek. Etxeko hizkuntza-egoera haurrei etxean gurasoekin hitz egiteko zein hizkuntza erabiltzen zuten galdetuz lortu zen. Galdera horri ematen zioten erantzunaren arabera, haurrak hiru azpitalde linguistikotan sailkatu ziren: gaztelaniadun hiztunak, hau da, etxean gaztelania hutsez hitz egiten duten haurrak (N = 97); euskal hiztunak edo etxean euskara hutsez hitz egiten duten haurrak (N = 87) eta elebidunak edo etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak (N = 62). Hizkuntza-taldearen eta adinaren arabera egindako laginaren banaketa azaltzen da 1. taulan.

1. Taula. Haurren adinaren batezbestekoa (eta desbiderapen estandarrak) hilabeteetan adin-taldearen eta hizkuntza-taldearen arabera.

	GAZTELANIADUN HIZTUNAK	EUSKAL HIZTUNAK	ELEBIDUNAK
6 URTE	80.1 (3.5) N = 21	79.7 (3.2) N = 29	77.7 (3.7) N = 13
9 URTE	106.9 (3.5) N = 31	109.0 (6.1) N = 20	105.7 (3.6) N = 12
12 URTE	144.8 (5.5) N = 25	144.7 (5.6) N = 18	143.8 (6.7) N = 19
15 URTE	181.0 (5.6) N = 20	184.4 (5.1) N = 20	179.7 (4.8) N = 18

2.2. Prozedura

Datuak biltzeko tresnatzat, galde-sorta erabili zen. Hori haur bakoitzari bakarka pasa zitzaion, eskolak horretarako utzitako gela lasai batean. Galde-sorta eran-

tzuteko hizkuntza umeak elkarrizketatzailearekin elkartzean bere kabuz erabili zuena izan zen. Behin adiskidetzeko harremanak izan eta gero, umeari honako hau esaten zitzaion:

Begira, (umearen izena), neska-mutil askorekin hitz egitera etorri naiz. Haurrentzako liburu bat idazten saiatzen ari naiz eta nire liburua ondo egon dadin, komenigarria iruditu zait zure adineko pertsonekin hitz egitea. Horrela jakingo dut idazten ari naizen gauzei buruz dakizuena, pentsatzen duzuen edo sentitzen duzuen. Horrek esan nahi du zure benetako ideiak eta pentsamenduak direla balio dutenak. Ez dago erantzun zuzen edo okerrik eta nik galdetzen dizudan zerbait ulertzen ez baduzu, esan ieza dazazu lasai. Zu baino zaharragoak diren haurrekin ere hitz egin dut. Horregatik, zenbait galdera zail samar egingo zaizkizu. Baina beste batzuk errazagoak izango dira. Ez kezkatu zailak direnak ezin badituzu erantzun. Ados? Ezin baduzu erantzun, esan eta kito. Zer, lagunduko al didazu? Oso ondo, has gaitezen.

Elkarrizketatzailea, umeak ulertzeko arazorik edo bazuen, laguntzeko prest ze goen. Haurrek galde-sortari ordena berean erantzun zioten. Galde-sortari erantzuteko erantzun-txartelak erabili ziren.

Galde-sortaren lehen bertsioa eta erantzun-txartelak ingelesez zeudenez, euskarara eta gaztelaniara itzuli ziren, azken hizkuntza honetan dauden sexuaren araberrako ezberdintasunak kontuan hartuz. Bi itzulpenak konparatu egin ziren eta egon ziren desadostasunak eztabaidaren bidez bideratu ziren. Itzulpenak berriz ere itzultzaile independente batek ingelesera itzuli zituen, eta azken itzulpen hori lehen bertsioarekin konparatu zen itzulpen-prozesuak sor zitzakeen esanahi-aldaketak saihesteko.

2.3. Galde-sortan sartzen diren aldagaiak

Galde-sorta, umearen datuez gain, honako aldagai hauek osatzen zuten:

2.3.1. Autokategorizazioa

Autokategorizazioa bi eratara aztertu zen: lehenengoan umeari 15 txartelez osatutako txartel-joko bat aurkezten zitzaion. Txartelek honako termino deskriptiboak zituzten: *6 urte*, *9 urte*, *12 urte*, *15 urte*, *neska*, *mutila*, *hiria* (hain zuzen ere, gentilizioa), *euskalduna*, *extremadurarra* (txartel hau aukeratu zen Euskal Herrian dauden etorkinen ehunekorik handiena herri horretatik datorrelako), *espainiarra*, *europarra*, *ingeleza*, *frantsesa*, *italiarra* eta *alemaniarra*. Elkarrizketatzaileak zoriz banatzen zituen txartelak mahai gainean honako hau esanez: «Begira txartel hauek. Hitz hauek guztiek pertsonak deskribatzeko balio dute. Zeintzuk uste duzu balioko luketela zu deskribatzeko? Zure ustez, zeintzuk adierazten dute zu nolakoak zaren? Nahi dituzun guztiak aukera ditzakezu. Irakurtzen lagunduko al dizut?». Behin umeak txartelak aukeratu eta gero, elkarrizketatzaileak gainontzeko txartelak aparte jarri eta umeak aukeratutakoak mahai gainean zabaltzen zituen zorizko ordena batean. Orduan, honako hau esaten zion: «Beraz, txartel hauek guztiak deskribatzen zaituzte. Zuk, txartel hauetatik bakarra aukeratu beharko bazenu zuretzat garrantzitsuena delako, zein aukeratuko zenuke?».

Autokategorizazioa aztertzeko bigarren era honako galdera hau izan zen: «Orain imajina ezazu Ameriketara zaudela oporretan eta norbaitek nongoa zaren

galdetzen dizula. Zer erantzungo zenioke?». Oraingo honetan, erantzun-txarteletan honako aukera hauek zeuden idatzirik: *Hiria/Herria, Euskal Herria, Espainia, Europa, Ez dakit*.

2.3.2. Identifikazio nazionalak

Haurren identifikazio nazionalak hiru txartel-joko erabiliz neurtu ziren. Lehenean, identifikazio espainiarra aztertzen zen, eta txartelek honako testu hau zuten: *oso espainiarra, zertxobait espainiarra, ez batere espainiarra, ez dakit*. Elkarrizketa-tzaileak txartel-jokoa zabaltzen zuen umearen aurrean ezkerretik eskubira arestian jarritako ordenean eta hau esaten zion: «Hauetako zein txartel da zure ustez hobeto deskribatzen zaituena?» Umearen erantzuna apuntatzen zen.

Bigarren txartel jokoa euskal identitateari zegokion eta txarteletan idatzitako testua honako hau zen: *oso euskalduna, zertxobait euskalduna, ez batere euskalduna, ez dakit*. Prozedura, espainiar identitatearekin erabilitakoa izan zen. Azkenik, identitate konparatuak aztertzea helburu zuen hirugarren txartel-joko bat zabaltzen zen mahai gainean. Joko hori honako txartel hauek osatzen zuten: *euskalduna, espainola baino euskaldunagoa, espainola bezain euskalduna, euskalduna baino espainolagoa, espainola, ez dakit*. Oraingoan ere, umeari bere burua hobekien deskribatzen zuen txartela aukeratzeko eskatzen zitzaion, eta bere erantzuna apuntatu egin zen.

2.3.3. Endotalde nazionalaren eta beste exotalde jakin batzuen inguruko ebaluaketak eta sentimenduak

Aldagai horiek neurtzeko, bi metodo erabili ziren. Lehenean umeari honako zazpi talde nazionalen inguruko deskribaketak eskatzen zitzaizkion: euskaldunak, extremadurarrak, espainiarrak, frantsesak, italiarrak, britainiarrak eta alemaniarrak. Umeari zorizko ordenan testu hau zuten 12 txartelez osatutako txartel-joko bat aurkezten zitzaion: *zikinak, garbiak, atseginak, ezatseginak, argiak, leloak, alperrak, langileak, alaiak, goibelak, zintzoak, iruzurtiak*. Termino hauek aukeratu ziren beste ikerketa batzuetan behatu izan delako haurrei talde nazionalak deskribatzeko eskatzen zaienean beren kabuz termino horiek erabiltzen dituztela (Lambert & Klineberg, 1967; Barrett & Short, 1992). Behin txartelak erakutsi eta gero, honako hau esaten zitzaion:

Hemen pertsonak deskribatzen dituzten hitz batzuk dituzu. Guk esan dezakegu pertsona bat ... (lehenengo txarteletako hitza) dela eta beste bat ... (bigarren txarteletako hitza) dela. Bai? Beno, ba nahi dudana zera da: zuk banan-banan txartel guztiak aztertzea eta zuretzat euskaldunak deskribatzen dituzten haiek separatzea. Egin al dezakezu, mesedez? (umeari txartel-joko osoa eman). Euskaldunak deskribatzen dituzten hitzak separa itzazu.


Bigarren metodoa, berriz, honakoa izan zen: umeak talde bakoitza deskribatu eta gero, ea talde hori gustukoa zuen ala ez galdetzen zitzaion. Baietz ala ezetz esaten zuenean, «Zenbat gustatzen zaizkizu/ez zaizkizu gustatzen, gutxi ala asko?» galdetu eta testu hau zuen txartel-jokoa erakusten zitzaion erantzuna aukera zezan: *Asko gustatzen zaizkit. Apur bat gustatzen zaizkit. Ez zaizkit gehiegi gustatzen. Ez zaizkit batere gustatzen. Ez dakit*. Bi metodoetan arestian aipatutako prozedura bera erabili zen zazpi taldeekin.

3. Emaitzak

3.1. Autokategorizazioa

Autokategorizazioa aztertzeko erabili genuen lehen betebeharrean haurrek hizkuntza-taldearen arabera emandako erantzunak 1. Irudian daude ikusgai. Haurren lehen aukeraketaren eta hizkuntza-taldearen eta adinaren arteko harremanik bazegoen egiaztatzeko, *Log Linear* analisi hierarkiko bat egin genuen. Analisi horrek adierazitakoaren arabera, ez dago harreman esanguratsurik erantzunen eta adinaren artean. Bai, ordea, erantzunen eta hizkuntza-taldearen artean ($\chi^2(10) = 38.61, p < .001$). Euskal hiztunen eta elebidunen artean maiztasun handiagoz aukeratu zen *euskalduna* kategoriarik garrantzitsuenentzat (euskal hiztunen %39,1 eta elebidunen %40,3) gaztelaniadun hiztunekin konparatuta (%14,4). Bestalde, *espainiarra* delako kategoriari dagokionez, gaztelaniadun hiztunen artean txartel hori kategoriarik garrantzitsuenentzat %11,3k aukeratu zuten eta beste bi talde linguistikoetan ez zuten inork aukeratu. *Europarra* kategoria hiru taldeetan oso gutxitan aukeratu zuten kategoriarik garrantzitsuenentzat. Hain zuzen ere, euskal hiztunen %1,1ek, elebidunen %1,6k eta gaztelaniaren erabiltzaileen %5,2k. *Generoa* adierazten zuten txartelak, ostera, hiru taldeetako kideentzat oso kategoria garrantzitsuak zirela behatu zen (euskal hiztunen %39,1ek, elebidunen %33,9k eta gaztelaniaren erabiltzaileen %44,3k aukeratu zuten).

1. irudia. Haurrek aukeran zituzten kategorietatik garrantzitsuenentzat hautatu zituztenen maiztasunak hizkuntza-taldearen arabera.




Aipatu bezala, autokategorizazioa neurtzeko erabili genuen bigarren metodoa honako galdera hau izan zen: «Orain imajina ezazu Ameriketara zaudela oporretan eta norbaitek nongoa zaren galdetzen dizula. Zer erantzungo zenioke?». Haurrek hizkuntza-taldearen arabera emandako erantzunak 2. Irudian ikus daitezke. *Log Linear* analisi hierarkiko batek adierazi zigun erantzunen eta hizkuntza-taldearen artean harremana dagoela ($\chi^2(10) = 17.77, p < .06$), eta erantzunen eta adinaren artean ere bai ($\chi^2(15) = 123.00, p < .000$). Gaztelania hutsa erabiltzen dutenen artean gutxiago izan ziren beste bi taldeekin konparatuta, *Euskal Herria* erantzun

zutenak eta gehiago *Espainia* aukeratu zutenak (gaztelaniaren erabiltzaileen kasuan %21,6k aukeratu zuten, eta euskal hiztunen %36,8k eta elebidunen %40,3k aukeratu zuten).

Erantzunen eta adin taldearen arteko harremanaren azalpena honako hiru gertakaritan koka daiteke: alde batetik, *Hiria* aukeratzen dutenen kopuruan ematen den beherakadan (6 urtekoen %88.9tik 15 urtekoen %12.1era). Bestalde, *Euskal Herria* erantzun zuten subjektuen kopurua handitzean (6 urtekoen %3.2tik 15 urtekoen %57ra) eta, azkenik, *Espainia* erantzuna areagotzean (6 urtekoen %6.3tik 15 urtekoen %27.6ra). Hizkuntza-taldearen, adinaren eta erantzunen arteko hirugarren mailako harremana ez zen esanguratsua izan.

2. irudia. «Imajina ezazu Ameriketako Oporretan zaudela eta norbaitek nongoa zaren galdetzen dizula. Zer erantzungo zenioke?» galderari emandako erantzun ezberdinen maiztasuna hizkuntza-taldearen arabera.




3.2. Identifikazio nazionalak

3.2.1. Espainiar identifikazioa

Log Lineal analisi hierarkiko batek adierazitakoaren arabera, identifikazio espainiarrari buruzko betebeharrean, oso harreman esanguratsuak daude erantzunen eta hizkuntza-taldearen ($\chi^2 (8) = 42.94, p < .000$) eta adinaren artean ($\chi^2 (12) = 63.42, p < .000$). Emaitzak 3. Irudian ikus daitezke. Erantzunen eta hizkuntza-taldearen arteko harremanari dagokionez, *Ez batera espainiarra* txartela euskal hiztunen eta elebidunen artean oso aukeratua izan zen bitartean (%33,7 eta %36,1), gaztelaniadun hiztunen artean maiztasun handiagoz aukeratu zen *Oso espainiarra* (%37,1).

Erantzunen eta adinaren arteko harremanaren arrazoia hemen koka daiteke: alde batetik, *Ez dakit* erantzunak adinarekin duen gainbehera, erantzun hau 6 urtekoen %41.3tik, 15 urtekoen % 5.2ra jaisten baita. Bestalde, *ez batere espainiarra* erantzuna areagotzean, 6 urtekoen %12.7tik 15 urtekoen %34.5era pasatzen baita. Azkenik, *zertxobait espainiarra* erantzunaren maiztasuna areagotzean, zeina 6 urtekoen %17.5etik 15 urtekoen %50.0ra pasa baita. Oraingoan ere ez zen esanguratsua izan hizkuntza-taldearen, adinaren eta erantzunaren arteko hirugarren mailako harremana.


3. irudia. Espainiar identifikazio-maila ezberdinen maiztasuna hizkuntza-taldearen arabera.



3.2.2. Euskal identifikazioa

Log Lineal analisi batek adierazitakoaren arabera, oso harreman esanguratsuak daude euskal identifikazio-mailaren eta hizkuntza-taldearen ($\chi^2(6) = 53.57, p < .000$) eta adinaren artean ($\chi^2(9) = 33.09, p < .000$). Emaitzak 4. Irudian ikus daitezke. Identifikazio euskaldunaren eta hizkuntza-taldearen arteko harremanari dagokionez, nahiz eta hiru talde linguistikoetan *oso euskalduna* txartela izan aukeratuena, taldeen arteko ezberdintasunak behatzen dira. Euskal hitzunen eta elebidunen artean horixe izan zen aukeratuena (%85.1 eta %74.8) bigarrenari izugarriko aldea atereaz. Gaztelaniadun hitzunen artean, berriz, subjektuen %43.3k aukeratu zuten. Gaztelaniadun hitzunei dagokienez, aipagarria da horietako %14.4k aukeratu zuela *ez batere euskalduna*; beste bi taldeetan, aldiz, txartel hori aukeratu zuten subjektuen portzentaia askoz ere baxuagoa izan zen (euskal hitzunen %4,6 eta elebidunen %3,2).


4. irudia. Euskal identifikazio-maila ezberdinen maiztasuna hizkuntza-taldearen arabera.



Erantzunen eta adinaren arteko harremanaren arrazoia hemen koka daiteke: alde batetik, *Ez dakit* erantzunak adinarekin duen gainbeheran, erantzun hau 6 urtekoen %15.9k aukerazetik, 15 urtekoen % 1.7ra jaisten baita. Bestalde, *zertxobait euskalduna* erantzuna areagotzean, 6 urtekoen %6.3tik 15 urtekoen %22.4ra pasatzen baita. Kasu horretan ere ez zen esanguratsua izan hizkuntza-taldearen, adinaren eta erantzunaren arteko hirugarren mailako harremana.

3.2.3. Espainiarra vs. Euskal identifikazioa

5. irudia. Espainiarra vs. euskalduna identifikazio konparatuan erantzun ezberdinen maiztasuna hizkuntza-taldearen arabera.



Log Lineal analisi hierarkikoak oraingoan adierazitakoaren arabera, oso harreman esanguratsuak daude aldagai honen eta hizkuntza-taldearen artean ($\chi^2(10) = 58.55, p < .000$), ez ordea, erantzunen eta adinaren artean. Emaitzak 5. Iru-

dian ikus daitezke. *Euskalduna* izan zen erantzunik aukeratuena euskal hiztunen eta elebidunen artean (%65.5 eta %46.8), eta *Euskaldunago espainiarra baino* erantzuna bigarren tokian kokatzen da (%16,1 eta %27,4). Gaztelaniadun hiztunen artean, berriz, *euskalduna bezain espainiarra* da aukeratuena (%25,8) eta bigarren tokian *espainiarrago euskalduna baino* (%21,65).

3.2.4. Endotalde nazionalen eta beste exotalde jakin batzuen inguruko ebaluaketak eta sentimenduak

Euskaldunak, extremadurarrak, espainiarrak, frantsesak, italiarrak, britainiarrak eta alemaniarrak talde nazionaleri egotzitako izenlagunen analisia honela burutu zen: lehenik, umeari aurkeztutako 12 izenlagunak honako dimentsio haueetan sailkatu ziren: *Garbiak (Zikinak/garbiak)*, *atseginak (Atseginak/Ezatseginak)*, *argiak (Argiak/Leloak)*, *langileak (Alperrak/Langileak)*, *alaiak (Alaiak/Goibelak)* eta *zintzoak (Zintzoak/Iruzurtiak)*. Ondoren, umeak talde nazional bakoitzari buruz emandako erantzunak honela puntuatu ziren: ez bazuen dimentsio bateko izenlagunik aukeratzen, 0; izenlagun negatiboa aukeratzen bazuen, 1; biak aukeratzen bazituen, 2; eta positiboa aukeratzen bazuen, 3. Azkenik, puntuaketa horiek batu eta gero umeak erabilitako dimentsio kopuruarekin zatitu ziren. Prozedura horri esker, 1etik 3rako eskala batean, talde bakoitzaren ebaluaketari buruzko izenlagunak puntuaketa lortu zen. Zenbat eta altuagoa puntuaketa, orduan eta positiboagoa umeak talde horri buruz egiten duen ebaluaketa.

Zazpi talde nazionalen ebaluaketari buruzko puntuaketak Oblimin Rotazioko faktore-analisi baten bidez aztertu ziren. Emaitzak 2. taulan daude ikusgai. Faktore-analisiak bi dimentsio eman zituen: lehenean frantsesen, extremaduraren, alemaniarren, espainiarren, italiarren eta britainiarren inguruko ebaluaketak zeuden eta bigarrenetan euskaldunen ebaluaketak sartzen ziren. Faktore horiek *Besteak* eta *Gu* izenda daitezke, *Gu* euskaldunak eta *Besteak* beste talde nazionalak izanik.

2. taula. Talde nazionaleri egotzitako izenlagunen oinarrian dauden faktoreak.

	1. FAKTOREA	2. FAKTOREA
FRANTZIARRA	.76	
EXTREMADURARRA	.66	
ALEMANIARRA	.66	
ESPAINIARRA	.66	
ITALIARRA	.63	
INGELES	.63	
EUSKALDUNA		.92
Eigenvalue	2.68	1.07
Azaldutako bariantzaren %	%38.3	%15.2%

Besteak faktorea osatzen zuten sei puntuaketak fidagarriak izan ziren (Cronbach-en alpha = 0.75) eta, ondorioz, sei puntuaketa horietatik ebaluaketen batez besteko puntuaketa soil bat eratorri zen. *Gu* eta *Besteak* puntuazioetan

adinaren edo hizkuntza-taldearen arabera ezberdintasun esanguratsuak zeuden jakiteko, 4 (adina) x 3 (hizkuntza-taldea) x 2 (*Gu* eta *Besteak*) bariantza-analisi anizkoitz bat egin zen, lehen bi faktoreak aldagai askeak eta hirugarrena errepikapen neurri gisa erabili zirelarik. Ez zen adinaren araberako eragin esanguratsurik aurkitu. Bai, ordea, *Gu* eta *Besteak*-ena ($F(1,197) = 175.50, p < .001$). 3.Taulan ikus daitezkeen puntuaketen batezbestekoak begiratzuz gero, hiru talde linguistikoetan *Gu*-ri buruzko puntuaketak *Besteak*-i buruzkoak baino altuagoak direla beha daiteke. Horrekin batera, hizkuntza-taldearen efektu nagusia aurkitu zen ($F(2, 197) = 3.75, p < .05$). Efektu hori hizkuntza-taldearen eta *Gu* eta *Besteak*-en arteko elkarrekintza esanguratsu batek osatuta zegoen ($F(2, 197) = 17.07, p < .001$). *Scheffe Test*-ak erabili ziren hizkuntza-taldearen eragin hori aztertzeko. Horiek adierazi zuten euskal hiztunek *Besteak*-i emandako puntuaketak elebidunenak eta gaztelaniadun hiztunenak baino askoz ere baxuagoak zirela. Horrekin batera, analisiak adierazi zuen *Gu* dimentsioaren kasuan euskal hiztunek emandako puntuaketak gaztelaniadun hiztunenak baino askoz ere altuagoak zirela. Horrela, etxean gaztelania erabiltzea (gaztelania hutsa edo gaztelania eta euskara) *Besteak*-en ebaluaketa positiboarekin erlazionatuta dago eta euskara hutsez hitz egitea, aldiz, *Gu*-aren ebaluaketa positiboagoarekin lotuta doa, gaztelaniaren erabiltzaileekin konparatuz gero.

3. taula. *Gu* eta *Besteak* faktoreen batezbestekoak (eta desbiderapen estandarrik).

	GAZTELANIADUN HIZTUNAK	EUSKAL HIZTUNAK	ELEBIDUNAK
1. FAKTOREA: BESTEAK	2.48 (0.35)	2.11 (0.57) ¹	2.43 (0.51)
2. FAKTOREA: GU	2.79 (0.42)	2.93 (0.20) ²	2.86 (0.31)

1. Gaztelaniadun hiztunen eta elebidunen *Besteak* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.
2. Gaztelaniadun hiztunen *Gu* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

3.2.5. *Endotalde nazionalen eta beste exotalde jakin batzuen inguruko sentimenduak*

Arestian aipatzen genuen bezala hurrei, talde nazional bakoitza deskribatu eta gero, ea talde hori gustukoa zuten ala ez galdetzen zitzaien. Haurren erantzunak honela puntuatu ziren: *Ez zaizkit batere gustatzen = 1, Ez zaizkit gehiegi gustatzen = 2; Ez dakit = 3; Apur bat gustatzen zaizkit = 4; Askok gustatzen zaizkit = 5*. Zazpi talde nazionalen inguruko sentimenduei buruzko puntuaketak Oblimin Rotazio faktore-analisi baten bidez analizatu ziren. 4. taulan ikus daitezkeen bezala, faktore-analisiak bi dimentsio eman zituen: lehenean alemaniarren, frantziarren, italiarren, extremaduraren eta britainiarren inguruko sentimenduak kokatzen ziren eta bigarrean euskaldunen eta espainiarren inguruko sentimenduak elkarren aurka zeuden. Faktore horiek *Beste europar taldeen inguruko sentimenduak* eta *Euskaldunen vs. espainiarren inguruko sentimenduak* taldeetan bil daitezke.

4. taula. Talde nazionalen inguruko sentimenduen oinarrian dauden faktoreak.

	1 FAKTOREA	2 FAKTOREA
ALEMANIARRA	.70	
FRANTZIARRA	.68	
ITALIARRA	.67	
EXTREMADURARRA	.59	
INGELESIA	.55	
EUSKALDUNA		.84
ESPAINIARRA	.38	-.59
Eigenvalue	2.27	1.17
Azaldutako bariantzaren %	32.5	16.7

Beste europar taldeen inguruko sentimenduak faktorea osatzen zuten bost puntuaketak fidagarriak izan ziren (Cronbach-en $\alpha = 0.64$) eta, ondorioz, sentimenduen batez besteko puntuaketa soil bat eratorri zen. Espainiarrenganako sentimenduen inguruko puntuaketa negatiboa zenez, alderantziz puntuatu ziren eta faktore horren inguruko batez besteko puntuaketa bat eratorri zen.

Sentimenduei buruzko bi puntuaketetan adinaren edo hizkuntza-taldearen arabera ezberdintasun esanguratsuak zeuden jakiteko, 4 (adina) x 3 (hizkuntza-taldea) x 2 (*Beste europar taldeen inguruko sentimenduak* eta *Euskaldunen vs. espainiarren inguruko sentimenduak*) Bariantzaren Analisi Anizkoitz bat burutu zen, lehen bi faktoreak aldagai aske dira eta hirugarrena errepikapen-neurri gisa erabili ziren. Analisi horretan adinaren efektu nagusia aurkitu zen ($F(3, 217) = 5.52, p < .001$). *Scheffe Test*-ak erabili ziren adinaren efektu hori aztertzeke. Test horiek adierazi zuten bederatzi urtekoen sentimenduak ez zirela 15ekoenak bezain positiboak (afektuaren batezbesteko orokorra bederatzi urtekoen kasuan = 3.14 (SD = 0.57) eta hamabost urtekoenean = 3.55 (SD = 0.43)). Emaitza horiek bitxiak dira eta azaltzeko zailtasun handiak dituzte. Ez zen adinaren beste inongo eraginik behatu. Bai, ordea, hizkuntza-taldearena ($F(2, 217) = 3.95, p < .05$). Hau hizkuntza-taldearen eta *Beste europar taldeen inguruko sentimenduak* eta *Euskaldunen vs. espainiarren inguruko sentimenduak*-en arteko elkarrekintzak osatuta zegoen ($F(2, 217) = 20.73, p < .001$). Batezbestekoak 5. taulan ikus daitezke.

Scheffe Test-ak erabili ziren hizkuntza-taldearen eragina aztertzeke. Horiek adierazi zuten euskal hiztunek Europako beste herrien inguruan dituzten sentimenduak ez direla gaztelaniadun hiztunenak eta elebidunenak bezain positiboak; eta gaztelaniadun hiztunek euskal taldearen inguruan dituzten sentimenduak ez direla beste bi taldeenak bezain positiboak. Horrela, gaztelaniaren erabilpena etxean (gaztelania hutsa, edo gaztelania eta euskara) *Europako beste herriak*-en ebaluaketa positiboarekin erlazionatuta dagoen bitartean, euskararen erabilpena (elebidunak barne) euskal taldearen ebaluaketa positiboagoarekin (eta espainiarren inguruko sentimendu negatiboagoarekin) lotzen da.

5. taula. Beste talde europarrak eta euskaldunak vs. espainiarrenganako afektuen batezbestekoak (eta desbiderapen estandarrek).

	GAZTELANIADUN HIZTUNAK	EUSKAL HIZTUNAK	Elebidunak
1. FAKTOREA: BESTE TALDE EUROPARRENGA- NAKO AFEKTUA	3.46 (0.78)	2.99 (0.91) ¹	3.39 (0.77)
2. FAKTOREA: TALDE EUSKALDUNA VS. ESPAINIARREN- GANAKO AFEKTUA	2.95 (0.90) ²	3.77 (0.85)	3.62 (0.83)

1. Gaztelaniadun hiztunen eta elebidunen *Beste talde europarrak* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

2. Euskal hiztunen eta elebidunen *Euskaldunenganako vs. Espainiarrenganako afektua* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

3.2.6. Desberdintze positiboa eta identifikazio nazionalaren mailaren arteko harremana

Identitate Sozialari buruzko teoriak diotenaren arabera, gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta horrela, bere portaera irudi positibo hori lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa dagoenean, irudi positiboaren beharra besteekin konparatuz, norberaren taldea hobestean islatzen da. Gogorapen baikor horrek konparaketa-dimentsio egokietan norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioten ikuspegia behar du (Tajfel, 1978). Horrela, talde nazionalarekiko identifikazio-maila talde horri egotzitako desberdintze positiboaren mailarekin erlazionatuta egon beharko litzateke. Aurreikuspen hori era honetan aztertu zen.

Lehenik, izenlagunen bidezko ebaluaketetan talde frantziarrak, extremadurarrak, alemaniarrek, italiarrak eta britainiarrek lortutako puntuaketen eta euskaldunen puntuaketen arteko kenketa egin zen, eta hortik euskal taldearekiko desberdintze positiboko bost puntuaketa eratorri ziren. Puntuaketa horiek Oblimin Rotazio-ko faktore-analisi baten bidez aztertu ziren, analisi horrek honako hau adirazi zuen: guztiak faktore bakar batean biltzen zirela (eigenvalue = 2.80; bariantzaren % azaldua = %55.9), eta aldagaiek horretan 0.72 edo gehiagoko ekarpena egiten zutela. Bost aldagaien fidagarritasuna egokia izan zenez (Cronbach alpha = 0.80), euskal taldearen desberdintze positiboari buruzko puntuaketen batezbesteko bat eratorri zen. Horretan ondokoa aurkitu zen: euskal taldearen desberdintze positiboaren eta euskal identifikazio-mailaren artean korrelazio esanguratsua eta positiboa zegoela ($r = 0.26$, $p < .001$; korrelazioa 0.26 mantentzen zen, adina partzialki bazterturik).

Bigarrenez, izenlagunen bidezko ebaluaketetan talde frantziarrak, alemaniarrek, italiarrak eta britainiarrek lortutako puntuaketen eta espainiarren (kasu

honetan ez zen extremadurarren puntuaketarik erabili, extremadurarrak espainiar taldearen azpitalde bat direlako) puntuaketaren arteko kenketa egin zen, eta hortik espainiar taldearekiko desberdintze positiboko bost puntuaketa eratorri ziren. Puntuaketa horiek Oblimin Rotazio-ko faktore-analisi baten bidez analizatu ziren. Analisi horrek adierazi zuen guztiak faktore bakar batean biltzen zirela (eigenvalue = 2.53; bariantzaren % azaldua = %63.2) eta aldagaiek faktore horretan 0.79 edo gehiagoko ekarpena egiten zutela. Bost aldagaien fidagarritasuna egokia zenez (Cronbach-en alpha = 0.81), Espainiar taldearen desberdintze positiboko puntuaketaren batezbesteko bat eratorri zen. Hauxe aurkitu zen: espainiar taldearen desberdintze positiboaren eta espainiar identifikazio-mailaren artean korrelazio esanguratsu eta positiboa zegoela ($r = 0.31$, $p < .001$; adina partzialki bazterturik $r = 0.27$, $p < .001$). Beraz, euskal eta espainiar identifikazioen kasuetan emaitzak SITekin bat etorri ziren, identifikazio-maila taldeari egotzitako desberdintze positiboarekin erlazionaturik baitago.

Azkenik, egotzitako desberdintze positiboan adinaren edo hizkuntza-taldearen efekturik zegoen jakiteko, 4 (adina) x 3 (hizkuntza-taldea) x 2 (*Euskaldunen vs. espainiarren desberdintze positiboa*) bariantzaren analisi anizkoitz bat burutu zen, zeinean lehen bi faktoreak aldagai asketzat eta hirugarrena errepikapen neurri gisa erabili ziren. Analisi horretan ez zen adinaren araberako efekturik aurkitu. Bai, ordea, *Euskaldun vs. espainiarren desberdintze positiboaren* efektu nagusia ($F(1,197) = 88.18$, $p < .001$). Hori hizkuntza-taldea x *Euskaldun vs. espainiarren desberdintze positiboaren* arteko elkarrekintzak osaturik zegoen ($F(2, 197) = 23.19$, $p < .001$). Batezbestekoak 6. taulan ikus daitezke.

6. taula. Euskaldunen eta espainiarren desberdintze positiboko puntuazioen batezbestekoak (eta desbiderapen estandarrek).

	GAZTELANIADUN HIZTUNAK	EUSKAL HIZTUNAK	ELEBIDUNAK
EUSKALDUNEN DESBERDINTZE POSITIBOA	0.35 (0.52)	0.82 (0.63) ¹	0.41 (0.58)
ESPAINIARREN DESBERDINTZE POSITIBOA	0.24 (0.65) ²	-0.09 (0.79)	-0.04 (0.64)

1. Gaztelaniadun hiztun eta elebidunen *Euskal taldearen desberdintze positiboa* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

2. Euskal hiztunen *Espainiar taldearen desberdintze positiboa* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

Scheffe Test-ak erabili ziren efektu horiek aztertzeko. Test horiek adierazi zuten euskal taldearen desberdintze positiboan euskal hiztunek izandako puntuaketak gaztelaniadun hiztunenak eta elebidunenak baino askoz ere altuagoak zirela.

Espainiar taldearen desberdintze positiboan gaztelaniadun hiztunek lortutako puntuaketak, berriz, euskara hiztunenak baino askoz ere altuagoak izan ziren. Horrela, soilik euskara erabiltzea euskal taldearen desberdintze positiboaren maila altuagoarekin erlazionatzen da, eta gaztelania hutsa erabiltzea espainiar taldearen desberdintze positiboaren maila altuagoarekin lotzen da.

3.2.7. Desberdintze afektiboa eta identifikazio nazionalaren mailaren arteko harremana

Antzeko analisiak burutu ziren afektuaren (atsegin/ez atsegin) inguruko puntuaketen kasuan. Lehenik, afektuan talde frantziarrak, extremadurarrak, alemaniarrrak, italiarrak eta britainiarrak lortutako puntuaketen eta euskaldunen puntuaketa-aren arteko kenketa egin zen, eta horretatik euskal taldearekiko desberdintze positiboko bost puntuaketa eratorri ziren. Puntuaketa horiek Oblimin Rotazio-ko faktore-analisi baten bidez analizatu ziren. Horrek adierazitakoaren arabera, guztiak faktore bakar batean biltzen ziren (eigenvalue = 2.97; bariantzaren % azaldua = %59.3) eta aldagaiek horretan 0.75 edo gehiagoko ekarpena egiten zuten. Bost aldagaien fidagarritasuna egokia zenez (Cronbach alpha = 0.83), euskaldunen desberdintze afektiboko puntuaketa batezbesteko bat eratorri zen. Ondokoa aurkitu zen: euskaldunen desberdintze afektiboaren eta euskal identifikazio-mailaren artean korrelazio esanguratsu eta positiboa zegoela ($r = 0.41$, $p < .001$; korrelazioa 0.41 mantentzen zen, adina partzialki bazterturik).

Bigarrenez, afektuan talde frantziarrak, alemaniarrrak, italiarrak eta britainiarrak lortutako puntuaketen eta espainiarren puntuaketa-aren arteko kenketa egin zen, eta emaitza horretatik espainiar taldearekiko desberdintze afektiboko (*“affective distinctiveness”*) bost puntuaketa eratorri ziren. Puntuaketa horiek Oblimin Rotazio-ko faktore-analisi baten bidez aztertu ziren. Horrek adierazi zuen guztiak faktore bakar batean biltzen zirela (eigenvalue = 2.81; bariantzaren % azaldua = %70.2) eta aldagaiek faktore horretan 0.81 edo gehiagoko ekarpena egiten zutela. Bost aldagaien fidagarritasuna egokia zenez (Cronbach-en alpha = 0.86), espainiarren desberdintze afektiboko puntuaketa batezbesteko bat eratorri zen. Honako hau aurkitu zen: espainiarren desberdintze afektiboaren eta espainiar identifikazio-mailaren artean korrelazio esanguratsu eta positiboa zegoela ($r = 0.44$, $p < 0.001$; adina partzialki bazterturik $r=0.41$, $p < .001$). Beraz, bai euskal identifikazioan, bai eta espainiarrean ere, identifikazio mailaren eta taldeari egotzitako desberdintze afektiboaren arteko harreman positibo esanguratsua aurkitu zen.

Azkenik, desberdintze afektiboan adinaren edo hizkuntza-taldearen arabera ezberdintasun esanguratsurik zegoen jakiteko, 4 (adina) x 3 (hizkuntza-taldea) x 2 (*Euskaldunen vs. Espainiarren desberdintze afektiboa*) bariantzaren analisi anizkoitz bat burutu zen, zeinean lehen bi faktoreak aldagai aske gisa eta hirugarrena errepikapen neurri gisa erabili ziren. Analisi horretan ez zen adinaren efekturik aurkitu. Bai, ordea, *euskaldunen vs. espainiarren desberdintze afektiboaren* eragin nagusia ($F(1,210) = 65.83$, $p < .001$). Hori hizkuntza-taldea x *euskaldunen vs. espainiarren desberdintze afektiboaren* arteko elkarrekintzak osatuta zegoen ($F(2, 210) = 21.59$, $p < .001$). Batezbestekoak 7. taulan ikus daitezke.

7. taula. Euskaldunen eta espainiarren desberdintze afektiboko puntuazioen batezbestekoak (eta desbiderapen estandarrak).

	GAZTELANIADUN HIZTUNAK	EUSKAL HIZTUNAK	ELEBIDUNAK
EUSKALDUNEN DESBERDINTZE AFEKTIBOA	0.79 (1.33) ¹	1.77 (1.02)	1.39 (0.95)
ESPAINIARREN DESBERDINTZE AFEKTIBOA	0.85 (1.27) ²	0.16 (1.50)	0.17 (1.53)

1. Euskal hiztunen eta elebidunen *Euskal taldearen desberdintze afektiboa* puntuaketetatik ezberdintasun esanguratsua.
2. Euskal hiztunen eta elebidunen *Espainiar taldearen desberdintze afektiboa* puntuaketetako ezberdintasun esanguratsua.

Scheffe test-ak erabili ziren eragin horiek aztertzeko. Analisi horiek adierazi zuten euskaldunen desberdintze afektiboan euskal hiztunek eta elebidunek izandako puntuaketak gaztelaniadun hiztunenak baino askoz ere altuagoak zirela. Espainiarren desberdintze afektiboan gaztelaniadun hiztunek lortutako puntuaketak, berriz, euskal hiztunenak eta elebidunenak baino askoz ere altuagoak izan ziren. Horrela, euskara erabiltzen dutenekin konparatuz gero etxean gaztelania hutsez hitz egiten dutenek euskaldunen desberdintze afektiboaren maila baxuagoa eta espainiarren desberdintze afektiboaren maila altuagoa adierazten dute.

4. Eztabaida

Ikerketa honetan behatutakoaren arabera, hizkuntza-taldearekin konparatuz gero, gutxi dira adinaren araberrako ezberdintasunak. Adinarekin eta hizkuntza-taldearekin erlazionatutako ezberdintasun horiek txandaka aztertuko ditugu.

4.1. Adinarekin erlazionatutako ezberdintasunak

Haurrek «*Imajina ezazu Ameriketara oporretan zaudela eta norbaitek nongoa zaren galdetzen dizula. Zer erantzun zenuke?*» galderari emandako erantzunen eta adinaren arteko harreman esanguratsua dagoela adierazi zuten emaitzek. Nagusiki, haur gazteenek beren herri edo hiriaren izena emateko joera zuten, zaharrenek, aldiz, *Euskal Herria* edo *Espainia* aipatzekoa zuten. Garapen-ildo hori hiru talde linguistikoetako haurrengan behatu zen. Adinaren eta erantzunen arteko harreman hori gazteenentzat ingurune konkretuagoa eta hurbilagoa den hiriak duen garrantzian izan dezake bere oinarria. Adinarekin, berriz, agian deszentrazio-prozesuaren ondorioz, abstraktuagoak diren inguruneek (*Euskal Herria* edo *Espainia*) hartzen dute garrantzia. Hala ere, aurkitu dugu interpretazio horrekin bat

ez datorren daturik. Emaitzek adierazi digutenez, oso gutxi izan dira bere burua deskribatzeko terminorik garrantzitsuenentzat hiritar identitatea aukeratu duten haurrak (ikusi 1. irudia); asko, ordea, euskal Identitatea aukeratu dutenak. Azalpen alternatibo bat hau izan daiteke: «*Imajina ezazu Ameriketako oporretan zaudela eta norbaitek nongoa zaren galdetzen dizula. Zer erantzun zenuke?*» galderan aberri bat adierazten duen terminoa azaltzen denez, haurrak heltzen doazen neurrian, uler dezakete orokortasun-maila bera duen termino batekin erantzun behar dutela. Txikiak, berriz, ez dira galderaren inplikazio tazito horretaz ohartzen eta, ondorioz, beste orokortasun-maila bat adierazten duten terminoekin –adibidez, hiriaren izenarekin– erantzuteko joera izan dezakete.

Espainiar eta euskal identitateen inguruko betebeharraren ere adinaren araberrako ezberdintasunak aurkitu ditugu. Hain zuzen ere, ez dakit erantzunaren maiztasuna adinarekin gutxituz doa. Hau agian ez da harrizkoa kontutan hartzen badugu identitate nazionalaren sentimendua seigarren urtetik aurrera hasten dela garatzen. Horrela, txikiak oraindik bere identitate nazionalaren inguruko zalantzak izan dituzte. Gainera arazo hori Euskal Herrian areagotu egiten da, bertan haurrak oso adin goiztiarretatik gatazkan dauden espainiar eta euskal kategoria nazionalarekin aurkitzen baitira (Apalategi, Balluerka eta Isasi, 2001). Kategoria horiek, ikuspegi ideologikoaren arabera, bateragarri edo bateraezintzat har daitezke. Gainera, *Ez batere espainiarra, zertxobait espainiarra eta zertxobait euskalduna* erantzunen maiztasuna adinarekin areagotzen den bitartean, *Oso Espainiarra* eta *Oso Euskalduna* erantzunena ez da aldatzen. Interesgarria litzateke jakitea ea sei urterekin *Ez dakit* erantzuna eman duten haurrek beranduago estatuarekiko identifikazio maila ahulagoa adierazten duten. Luzerako ikerketa beharko litzateke hori argitzeko.

Ondorio horiek alde batera utzirik, ikerketa honetatik eratortzen den argazki orokorra hau da; adin-talde guztietako haurrek erantzuteko garaian antzeko joerak adierazi dituztela. Hori ez dator bat identitate nazionalaren garapenari buruzko ikuspegi kognitibo-ebolutiboekin. Aboud-ek (1988; Doyle, Beaudet & Aboud, 1988; Doyle & Aboud, 1995), adibidez, 4 eta 12 urteren artean aurreiritzian aldatetako izaten direla aldarrikatzen du. Bere ustez, 6 urterekin haurrek beren taldeko kideak deskribatzeko ezaugarri positiboak eta beste taldeetako kideak deskribatzeko negatiboak erabiltzeko joera dute, eta 12 urterekin, berriz, ezaugarri positiboak zein negatiboak erabiltzen dituzte bai endotaldea eta bai exotaldeak deskribatzeko. Gainera, bere iritziz, haurrek adinarekin onartzen dute talde ezberdinetan mota guztietako jendea dagoela. Ikerketa honetan ez da horrelakorik behatu eta, alde horretatik, Aboud-en emaitzen orokorpenaz zalantzak sortzen zaizkigu.

Hain zuzen ere, gure emaitzek zalantzan jartzen dituzte testuinguru guztietan identitate nazionalaren garapenak joera berdina jarraitzen dituela dioten eredu teorikoak. Mota horretako teoria unibertsalistek ezin dute azaldu, adibidez, zergatik Suedia, Ingalaterra, Eskozia eta Italiako haurrengan identitate nazionalan adinaren araberrako ezberdintasunak behatzen diren (Piaget & Weil, 1951; Tajfel, 1966; Barrett et al., 1997; Barrett, Wilson et al., 1999) eta ez den gauza bera behatzen Euskal Herriko haurrengan. Piaget-en araberrako testuinguru kultural guztietan identitate nazionala garapen-estadio berdinetan islatzen da (Piaget & Weil, 1951), baina identitate nazionalaren garapenari buruz emandako

azalpen horiek ez lirateke baliagarriak izango ikerketa honetan aurkitutako emaitzak azaltzeko.

4.2. Hizkuntza-taldearekin erlazionatutako ezberdintasunak

Laburbilduz, emaitzek ondokoa adierazten digute: etxean gaztelania hutsez hitz egiten duten haurrek, euskara hutsez hitz egiten dutenekin konparatuta, beren burua deskribatzeko kategoriarik garrantzitsuenentzat *Euskalduna* aukeratzeko joera urriagoa adierazten dutela. Gainera, *Espainiakoak* direla esateko joera handiagoa dutela. Bestalde, *Oso espainiarrak* sentitzeko joera handiagoa dute, eta *Oso euskaldunak* sentitzeko joera urriagoa. Identitate konparatuei dagokienez, *Euskalduna bezain Espainiarrak* edo *Espainiarrago euskalduna baino* sentitzeko joera handiagoa dute. Horretaz gain, exotalde nazionalak positiboago ebaluatzen dituzte, euskaldunak, aldiz, ez dituzte hain positiboki ebaluatzen. Gainera, euskaldunenganana afektu positiboaren maila urriagoa adierazten dute, eta espainiarrenganako maila handiagoa adierazten dute. Azkenik, euskaldunekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren maila baxuagoak eta espainiarrekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren maila altuagoak adierazten dituzte.

Etxean euskara hutsez hitz egiten dutenek, ordea, gaztelania erabiltzen dutenekin konparatuta, beren burua deskribatzeko kategoriarik garrantzitsuenentzat *Euskalduna* aukeratzeko joera handiagoa adierazten dute. Gainera, *Euskal Herrikoak* direla esateko joera handiagoa dute. *Ez batere espainiarrak* eta *Oso euskaldunak* sentitzen dira. Identitate konparatuei dagokienez, beren burua *Euskalduntzat* hartzeko joera handiagoa dute. Ez dituzte gaztelaniadun hiztunek bezain positiboki ebaluatzen exotalde nazionalak. Euskaldunak, ostera, oso positiboki ebaluatzen dituzte. Euskaldunenganako afektu positiboaren maila altuagoa eta Espainiarrenganako maila baxuagoa adierazten dute. Azkenik, euskaldunekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren maila altuagoak eta espainiarrekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren maila baxuagoak adierazten dituzte.

Elebidunek tarteko identifikazio nazionala adierazten dute, batzuetan euskal hiztunen eta beste batzuetan gaztelaniadun hiztunen antzeko joerak azalduz.

Emaitza horiek bat datoz Barrett, Del Valle eta euren kideek 1999an aurkitutakoarekin. Autore horiek Katalunian bizi diren haurrengan etxean erabilitako hizkuntzaren araberrako identifikazio-eredu ezberdinak aurkitu zituzten. Horrela, badirudi espainiar Estatuan etxeko hizkuntza-egoera oso erlazionaturik dagoela haurren identifikazio nazionalarekin.

Emaitza hauek bat datoz Irudikapen Sozialen Teoriak (SRT) dioenarekin. Horren arabera, umeak bere burua talde nazional batean kategorizatzen duenean, talde horretako kideek partekatzen dituzten Irudikapen Sozialak eskuratzen ditu (Duveen & Lloyd, 1990; Emler et al., 1990; Barrett, 1996). Irudikapen Sozial horien artean endotalde nazionalari eta beste zenbait exotalde nazionalari buruzkoak daude. Irudikapen horiek umearen ingurunean dauden eta garrantzitsuak diren diskurtso, elkarrekintza eta praxi sozialen baitan aurkitzen dira eta umeak gurasoekin edo beste pertsona garrantzitsu batzuekin dituen elkarrekintzetan beregatatzen ditu (Duveen & Lloyd, 1990; Lloyd & Duveen, 1990; Emler & Dickinson,

1993). Horrela, ebaluaketetan, sentimenduetan eta endotalde nazionalari egotzitako desberdintze positiboan behatutako desberdintasunak elkarrekintzen bidez ingurunean dauden Irudikapen Sozial ezberdinak jaso izanaren ondorioztat hartzen dira.

Honek ez du esan nahi etxean hizkuntza bat edo beste erabiltzea denik umearen identifikazio-eredua zehazten duen faktore bakarra, erabilpen hori gurasoek identifikazio nazionalarekiko dituzten joera ideologikoak edo balio-sistemak bezalako beste faktore sakonago batzuek zehatz baitezakete.

Guk argudiatuko genuke Euskal Herrian eta Katalunian hizkuntza-hautapena talde arteko desberdintze-tresnatzat erabiltzen dela. Hain zuzen ere, helduek hizkuntza-hautapena posizionaketa-tresna bezala erabiltzen dutela, horren bidez euren testuinguruetan ematen diren talde arteko gatazken aurrean (euskaldun eta espainiarren artean vs. katalanen eta espainiarren artean) duten jarrera islatzen dutelarik (Elejabarrieta, 1994; Valencia, Elejabarrieta, Perera, Reizabal, Barrett, Vila, Gil de Montes, Ortiz & Larrañaga, prentsan). Azalpen horrekin bat datoz Vila (1996) eta Azurmendi et al. (1998) ikerketak, zeinetan behatu den Euskal Herrian eta Katalunian bizi diren helduek hizkuntzari buruz hartutako erabakiak euren identifikazio nazionalarekin eta talde arteko harremanen inguruko ikuspegi ideologikoarekin erlazionatuta daudela. Horrela, litekeena da gurasoen identifikazio nazionala, kokapen taktikoa eta praxi sozialak izatea euren seme-alabek etxean erabiltzen duten hizkuntza eta haurrek bereganatzen dituzten identifikazio nazionalaren ereduak zehazten dituztenak. Ildo horretatik, hizkuntza-hautapena oinarrian dauden, eta etxean haurrei praxi sozialen eta diskurtsoaren bitartez umeari transmititzen zaizkien Irudikapen sozialen sistemen adierazle soziolinguistikotzat har daiteke. Hala ere, hipotesi hori egiaztatzeko, hau da, jakiteko ea gurasoen jarrera eta praxi sozialak edo hizkuntza-hautapena diren umearen identifikazio nazionalaren garapena zehazten dutenak, gurasoen jarreraren inguruko ikerketa gehiago behar da.

4.3. Desberdintze positiboari eta afektiboari buruzko emaitzak

Irudikapen Sozialei buruzko Teoriak dioenez, talde bateko partaideek irudikapen sozialak barneratzen dituzte eta horien artean endotaldeei zein exotaldeei buruzkoak. Identitate sozialari buruzko teoriak, berriz, endotaldeei zein exotaldeei buruzko irudikapen horiek subjektuak berak autoestima positiboa lortzeko eraikitzen dituela dio. Teoria horrek dioenaren arabera, gizabanako orok bere buruaren irudi positiboa behar du, eta horrela, bere portaera irudi positibo hori lortzera zuzenduko du. Talde batekiko identifikazioa dagoenean, irudi positiboaren beharra norberaren taldea hobestean islatzen da. Gogorapen baikor horrek konparaketa-dimentsio egokietan norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel, 1978). Horrela, talde nazionalarekiko identifikazio-maila talde horri egotzitako desberdintze positiboaren mailarekin erlazionatuta egon beharko litzateke.

Aurreikuspen horiekin bat etorritik, ikerketa honetan euskal identifikazio-mailaren eta euskaldunekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren mailen artean eta espainiar identifikazio mailaren eta espainiarrekiko desberdintze positiboaren eta afektiboaren mailen artean korrelazioak aurkitu dira. Nahiz eta korrelazio hauek

zenbakitan nahiko apalak izan (0.26 eta 0.44 artekoak), garrantzi-mailan helduekin egindako beste antzeko ikerketa batzuetan aurkitutakoekin konparagarriak dira (ikus Hinkle eta Brown, 1990). Gainera, euskal eta espainiar talde nazionaletan eta bi neurri ezberdinetan (izenlagunen bidezko ebaluaketa eta taldeenganako afektuan) aurkitu diren lau korrelazioetan ematen den egonkortasunak adierazten digu harreman hori, euskal haur hauen kasuan behintzat, sendoa dela (gainera, korrelazio horiek helduekin egindako beste ikerketa batzuetakoak baino sendoagoak dira. Ikus Hinkle eta Brown, 1990; Brown, 2000).

Horrela, haurren identifikazio nazionalaren ereduak gurasoen diskurtsoek eta praxi sozialek zehazturik egon daitezkeen arren, endotaldeari eta exotaldeei buruzko irudikapenak umeak berak kognitiboki eraikitakoak izan daitezke endotaldearen desberdintze positiboa areagotzeko eta autoestima sendotzeko, nahiz eta hori endotaldearekiko identifikazio-maila altua dagoenean bakarrik gertatu. Ondorioz, emaitza horien azalpen posiblea Irudikapen Sozialen eta Identitate Sozialaren inguruko teoriak planteatutako prozesuak identitate nazionalaren alde ezberdinen garapenaren baitan egotea izan daiteke. Hala ere, aipatu beharko litzateke ondorio hori ez litzatekeela beste ikerketa batzuekin bat etorriko, ikerketa horietan Identitate Sozialari eta Kategorizazio Sozialari buruzko teoriak diotenarekin bat datorren oso emaitza gutxi aurkitu da eta (Bennett et al. 1998; Barrett, Wilson et al. 1999; Lyons et al. 1997).

Beste azalpen bat izan daiteke talde barneko aurreiritziak ingurunean dauden endotaldeei eta exotaldeei buruzko irudikapenen barneratze-prozesuaren ondorio izatea, eta irudikapen horiek forma hori hartzea talde arteko desberdintzearen eta euskaldun eta espainiarren artean dagoen gatazkaren inguruko leialtasunen eta legitimazioaren isla direlako. Horrela, identifikazio nazionalen eta desberdintze positiboaren eta afektiboaren arteko korrelazioak umearen ingurunean dauden irudikapen sozialen isla lirateke, eta ez lukete islatuko inongo kausalitate zuzenik. Kausalitatearen arazoa argitzeko gurasoen balioak, praxi sozialak eta jarreraren inguruko ikerketaren beharra agerian gelditzen da.

5. Ondorioak

Ikerketa honek adierazten du, alde batetik, euskal haurren identifikazio nazionala etxeko hizkuntza-egoerarekin erlazionatuta dagoela; bestetik, euskal haurrek endotalde eta exotalde nazionalen inguruan egiten dituzten ebaluaketak eta talde horien inguruan dituzten sentimenduak etxeko hizkuntza-egoerarekin erlazionatzen direla. Hori dela eta, Euskal Herrian, Katalunian bezala, testuinguru linguistiko ezberdinek talde nazionalen inguruko pentsamendu eta sentimendu ezberdinak eragiten dituzte. Alde horretatik, ez lirateke baliagarriak izango teoria kognitibo-ebolutiboek identitate nazionalaren garapenari buruz emandako azalpenak, horien arabera identitate nazionala testuinguru kultural guztietan berdin garatuko bailitzateke. Ikerketa honetan aurkitu diren endotalde eta exotalde nazionalen egoztitako ezaugarri positiboetan eta negatiboetan adinaren araberako ezberdintasun ezak azaltzeko ere ez lirateke gai izango teoria kognitibo-ebolutiboak. Beraz, teoria sozio-psikologikoak eta, batez ere Irudikapen Sozialari eta Identitate Sozialari buruzko teoriak egokiagoak lirateke haurrek eremu honetan duten garapena azaltzeko.

Esker ona

Ikerketa hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV 227.231-ha030/98), Eusko Jaurlaritzak (PI1999-103) eta INTASEk (OPEN-97-1363) emandako diru-laguntzei esker egin ahal izan da. Gure esker ona adierazi nahi diegu ikerketaren diseinuan lankide izan diren honako pertsona hauei: Mark Bennett, Ignasi Vila, Almudena Giménez de la Peña, Tatiana Riazanova, Valentina Pavlenko, Giorgi Kipiani eta Rauf Karakazov.

Bibliografia

- Aboud, F. (1988): *Children and Prejudice*, Blackwell, Oxford.
- Axia, G.; Bremner, J.; Deluca, P. eta Andreassen, G. (1998): "Children drawing Europe: the effects of nationality, age and teaching", *British Journal of Developmental Psychology* **16**, 423-437.
- Apalategi, J.; Balluerka, N. eta Isasi, X. (2001): *La idea de nación en los niños vascos, Utriusque Vasconiae*, Donostia.
- Azurmendi, M.; Garcia, I. eta Gonzalez, J. (1998): "Influencia del uso de las lenguas en contacto con la identidad social en la Comunidad Autónoma Vasca", *Revista de Psicología Social* **13** (1), 3-10.
- Barrett, M. (1996): "English children's acquisition of a European identity", in G. Breakwell eta E. Lyons (Arg.), *Changing European Identities: Social Psychological Analyses of Social Change*, Butterworth-Heinemann, Oxford, 349-369.
- , (2000): "The Development of National Identity in Childhood and Adolescence", 2000-03-22an Surrey-ko Unibertsitatean emandako hitzaldia.
- , [argitaratze]: *Children's Beliefs and Feelings about Nations and National Groups*, Psychology Press, Hove, UK.
- Barrett, M.; Del Valle, A.; Lyons, E.; Vila, I.; Monreal, P. eta Perera, S. (1999): "Bilingual children and the sense of national identity: the case of children living in Catalonia", Donostian, 1999-ko Uztailean burututako *VIIIth International Congress for the Study of Child Language* kongresuan aurkeztutako lana.
- Barrett, M. eta Farroni, T. (1996): "English and Italian children's knowledge of European geography", *British Journal of Developmental Psychology* **14**, 257-273.
- Barrett, M. et al. (1997): "Children's Beliefs and Feelings about Their Own and Other National Groups in Europe", End of Award Report to the Commission of the European Communities, Directorate-General XII for Science, Research and Development, Human Capital and Mobility (HCM) Programme, Research Network No, CHRX-CT94-0687.
- Barrett, M.; Lyons, E.; Purkhardt, C. eta Bouchier, A. (1996): *English Children's Representations of European Geography*, End of Award Report to ESRC, Research Grant No. R000235753, Guildford: University of Surrey.
- Barrett, M. eta Short, J. (1992): "Images of European people in a group of 5-10 year old English schoolchildren", *British Journal of Developmental Psychology* **10**, 339-363.
- Barrett, M.; Wilson, H. eta Lyons, E. (1999): "Self-categorization theory and the development of national identity in English children", EEBB-etako Albuquerque hirian burutu zen *Biennial Meeting of SRCD* delakoan aurkeztutako posterra.
- Bennett, M.; Lyons, E.; Sani, F. eta Barrett, M. (1998): "Children's subjective identification with the group and ingroup favoritism", *Developmental Psychology* **34**, 902-909.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage, Londres.
- Breakwell, G. M. eta Canter, D. (Arg.) (1993): *Empirical Approaches to Social Representations*, Oxford University Press, Oxford.

- Breakwell, G. M. eta Lyons, E. (Arg.) (1996): *Changing European Identities: Social Psychological Analyses of Social Change*, Butterworth-Heinemann, Oxford.
- Brown, R. (1995): *Prejudice: Its Social Psychology*, Blackwell, Oxford.
- , (2000): *Group Processes*, Basil Blackwell, Oxford.
- Cutts Dougherty, K.; Eisenhart, M. eta Webley, P. (1992): "The role of social representations and national identities in the development of territorial knowledge: a study of political socialization in Argentina and England", *American Educational Research Journal* **29**, 809-835.
- De Rosa, A. S. (1997): "Feeling good about being Italian? National self-esteem and feelings in children aged 6-15", 1997ko irailean Rennes hirian burututako *VIIIth European Conference on Developmental Psychology* delakoan aurkeztutako komunikazioa.
- De Rosa, A. S. eta Bombi, A. S. (1997): "Italian children's multi-faceted knowledge of their own and other European countries", 1997ko irailean Rennes hirian burututako *VIIIth European Conference on Developmental Psychology* delakoan aurkeztutako komunikazioa.
- Doyle, A. B. eta Aboud, F. E. (1995): "A longitudinal study of white children's racial prejudice as a social-cognitive development", *Merrill-Palmer Quarterly* **41**, 209-228.
- Doyle, A.; Beaudet, J. eta Aboud, F. (1988): "Developmental patterns in the flexibility of children's ethnic attitudes", *Journal of Cross-Cultural Psychology* **19**, 3-18.
- Duveen, G. eta Lloyd, B. (1986): "The significance of social identities", *British Journal Of Social Psychology* **25**, 219-230.
- , (1990): "Introduction", in G. Duveen eta B. Lloyd (Arg.), *Social Representations and the Development of Knowledge*, Cambridge University Press, Cambridge, 1-10.
- Elejabarrieta, F. (1994): "Social positioning: a way to link social identity and social Representations", *Social Science Information* **33**, 241-253.
- Emler, N. eta Dickinson, J. (1993): "The child as sociologist: the childhood development of implicit theories of role categories and social organization", in M. Bennett (Arg.), *The Child as Psychologist: An Introduction to the Development of Social Cognition*, Hemel Hempstead, Harvester Wheatsheaf, 168-190.
- Emler, N.; Ohana, J. eta Dickinson, J. (1990): "Children's representations of social Relations", in G. Duveen eta B. Lloyd (Arg.), *Social Representations and the Development of Knowledge*, Cambridge University Press, Cambridge, 47-69.
- Farr, R. M. eta Moscovici, S. (Arg.) (1984): *Social Representations*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Giles, H., Bourhis, R. Y. eta Taylor, D.M. (1977): "Towards a theory of language in ethnic group relations", in H. Giles (Arg.), *Language, Ethnicity and Inter-group Relations*, Academic Press, Londres, 146-170.
- Hinkle, S. eta Brown, R. (1990): "Intergroup comparisons and social identity: some links and lacunae", in D. Abrams eta M. A. Hogg (Arg.), *Social Identity Theory: Constructive and Critical Advances*, Harvester Wheatsheaf, Hemel Hempstead, 48-70.
- Hogg, M.A. eta Abrams, D. (1988): *Social Identifications: A Social Psychology of Intergroup Relations and Group Processes*, Routledge, Londres.
- Jahoda, G. (1962): "Development of Scottish children's ideas and attitudes about other countries", *Journal of Social Psychology* **58**, 91-108.
- , (1963): "The development of children's ideas about country and nationality, Part I: The conceptual framework", *British Journal of Educational Psychology* **33**, 47-60.
- , (1964): "Children's concepts of nationality: a critical study of Piaget's Stages", *Child Development* **35**, 1081-1092.

- Jaspers, J.; Van de Geer, J., Tajfel, H. eta Johnson, N. (1972): "On the development of national attitudes in children", *European Journal of Social Psychology* **2**, 347-369.
- Johnson, N. (1973): "Development of English children's concept of Germany", *Journal of Social Psychology* **90**, 259-267.
- Johnson, N., Middleton, M. eta Tajfel, H. (1970): "The relationship between children's preferences for and knowledge about other nations", *British Journal of Social and Clinical Psychology* **9**, 232-240.
- Lambert, W. E. eta Klineberg, O. (1967): *Children's Views of Foreign Peoples: A Cross-National Study*, Appleton-Century-Crofts, New York.
- Lloyd, B. eta Duveen, G. (1990): "A semiotic analysis of the development of social representations of gender", in G. Duveen eta B. Lloyd (Arg.), *Social Representations and the Development of Knowledge*, Cambridge University Press, Cambridge, 27-46.
- Lyons, E. et al. (1997): "Intragroup homogeneity effects in the development of national identity: a cross-national study", 1997ko irailean Rennes hirian burututako VIIIth European Conference on Developmental Psychology delakoan aurkeztutako komunikazioa.
- Middleton, M.; Tajfel, H. eta Johnson, N. (1970): "Cognitive and affective aspects of children's national attitudes", *British Journal of Social and Clinical Psychology* **9**, 122-134.
- Moscovici, S. (1973): "Foreword to C. Herzlich", *Health and Illness*, Academic Press, Londres, xiii-xviii.
- , (1988): "Notes towards a description of social representations", *European Journal of Social Psychology* **18**, 211-250.
- Oakes, P. J.; Haslam, A. eta Turner, J.C. (1994): *Stereotyping and Social Reality*, Basil Blackwell, Oxford.
- Piaget, J. eta Weil, A.M. (1951): "The development in children of the idea of the homeland and of relations to other countries", *International Social Science Journal* **3**, 561-578.
- Reicher, S. eta Hopkins, N. (2000): *Self and Nation*, Sage, Londres.
- Reizabal, L. (1995): *Bakearen Dimentsio Kulturala Euskal Herriko Uste Sistema eta Pertzepzioetan*, EHUren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Reizabal, L. eta Valencia, J. (1995): "Identitate Soziala Nabarmentzearen Eragina Esklusio Moralean", *Uztaro* **15**, 97-107.
- Sachdev, I. eta Bourhis, R.Y. (1990): "Language and social identification", in D. Abrams eta M.A. Hogg (Arg.), *Social Identity Theory: Constructive and Critical Advances*, Harvester Wheatsheaf, Hemel Hempstead, 211-229.
- Tajfel, H. (1966): "Children and foreigners", *New Society* **7**, 9-11.
- , (Arg.) (1978): *Differentiation between Social Groups; Studies in the Social Psychology of Intergroup Relations*, Academic Press, Londres.
- , (Arg.) (1981): *Human Groups and Social Categories: Studies in Social Psychology*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Tajfel, H.; Jahoda, G.; Nemeth, C.; Campbell, J. eta Johnson, N. (1970): "The development of children's preference for their own country: a cross-national study", *International Journal of Psychology* **5**, 245-253.
- Turner, J. C.; Hogg, M. A.; Oakes, P. J.; Reicher, S. D. eta Wetherell, M. S. (1987): *Rediscovering the Social Group: A Self-Categorization Theory*, Basil Blackwell, Oxford.
- Valencia, J. et al. [argitaratzeaz]: "Conflictual national identities and linguistic strategies as positioning tools in children and adolescents", in *Proceedings of the 5th International Conference on Social Representations, "New Constructions", Montreal, Canada, 2000*.

- Vila, I. (1996): "Perspectives de futur de la immersió lingüística", *Veus Alternatives* **8**, 30-35.
- Vila, I.; Del Valle, A.; Perera, S.; Monreal, P. eta Barrett, M. (1998): "Autocategorización, identidad nacional y contexto lingüístico", *Estudios de Psicología* **60**, 3-14.
- Wilson, H. (1998): *The Development of National Identity in 5 to 11 Year Old English Schoolchildren*, [Argitaratu gabeko doktorego-tesia], Surreyko Unibertsitatea.